

UNIBERSIDADEKO BURU-JABETA-SUNA ZABALDU EGIN BEAR DA

Orain asi-berri dan ikastaroan, gertaera zirrarakor bat izan degu. Madrill etaartzelona'k beren Unibersidade buru-jabea izango dute. Ikusteko au, oso arrada aundiz artua izan da ikastetxe Nagusien giroan. Emendik sortu baititake, geroko lanaren asiera ta zabalera ekarriko duan egitekoa.

Oni datxakiola, «La Vanguardia'k» poliki adierazten digu, kontu ori leno Unibersidade zarretara zabal ditekela.

Buru-jabatasun edo Autonomia delakoak, —Madrill'go Unibersidade berri ontako Irakasle dan Sanchez Agesta'k dionez—, bi alderdi izan bearko ditu: diru-alderdia ta bere lan-alderdia. Ta bigarren oni eman dio garrantzi apartekoa. Asmaketa berriak eta irakaskintza eramteko lana, alegia, loturik gabek izan bearko dituzte; eta beste ainbeste lanen urrerapenak gertatzea, ikasaldiak egitea, irakasleak aukeratzea eta ikasaldi berriak antolatzetza ere.

Onak giro-aldaketa ekarriko du, Unibersidade berriak, lengoetatik onela bereziatzen. Orregatik, bearrekoa izango da aldaketa au zabalteza.

Egunkari orrek berak dionez, «Napoleon'en xixtema» gaitzeta da orrekini iritxi nai dana. Onela, eskualde edo errejio bakoitzak esku geiago izango du bere lurraldean Unibersidadearen aurrerapena pizkortzeko.

Orra zergatik ain gogoz eta aretaz dagoen jendea Unibersidade burujabe auen joera ta etorkizuna ikusteko.

ESTRANJERUAK EUSKERA

Sarritan etorri oi dira estranjertik Diputazioko Liburutegira, Sa-soiko gizon jakintsu pamatuak, eta jakintza bidian gogo biziz dabilzan gazteak.

Aiek eta abek, gure gauzak ikasi egarri biziarekin. Gure izkuntza, Euskalerrriko izate ta prolemak. Urte bete gutxi gora bera, Norteamerika Unibersidade batek bidalitako esturiantea bere emaztearekin izan genduala. ¡Nola gero ikasi zutela biak euskeraz!

Udara asteratzi or dabilkigu beste norteamerikano mutil jator bat, gure azoka goraberak aztertzen. Baserriar askok baño obotoango ikasitza sakondua da arazo au. Erakuspen ederrik emango lioke askori. Euskeraz azkar eta oso ondo ikasi du. Euskeraz ententitzen gera.

Oraingo au berriz alemana degu. Esturiantea gaztea. Lengo batean Euskaltzaindiko Sebero Altube ospetsu izan zanaren Edermisaz liburua eskatu ziran. Euskeraz egin zuan eskaera, jakina. Euskera jatorrean.

Amezketan bizi eta euskera sakontzen ari zala eta liburua bueltatuko zuala altzuan lasterren, agindu zuan.

Altuberen liburu ori askok eta askok ezkatzen zutela eta tarte oso matxa eman nion. Ez neukele beste erremediarik.

Plazoa bukatu eta eznuan izan libururik, baño bai nere aleman gaztearen karta bat oso letra ederrakin idatzi. Arrasto bat ere ez dago karta orretan zalantzan ipini. Ain zuzen eta seguru lerro danak. Idazki orrek merezi du zabalteza. Irakurri emen:

GUNTER BRETTSCHEIDER
"Amezqueta (Gupizcoa) 5.9.68.
"José de Arteche jaunari:
"Ziur asko gogoratuko zera ora-

indala egun batzuek alemandar bat "zetorkizun eta Altube'ar Erderis-mos eman zenizkion: eta alaxe gel-ditu giñan —ni aleman ori naizen "ezker-liburu ori egun gutxi ba-ruan bidaltzeko itz-eman nizuela.

"Orain, gertatzen zaidana orixe "da: liburuari neurritz gain interes-garria derizkiotelako zati luze as-ko kopiatzen ari naiz, eta oraindik "ezin nezake bukatu lan au.

"Orregatik eskatu nai nitzuke bes-te egun batzuek utzi dezaidzun li-burua ta datorren astean zuri itzu-riko dizut.

"Bestela, oraintxe bertan bear de-zunean, idatzi ezaidazu, arren, eta "berealaxe eukiko dezu liburua.

"Aurretik mill esker eta agur be-ro bat.

"Zurea.
"Gunter Brettschneider".

"Gure arteko zenbat euskaldun izango ote litezke orrelako karta idatzeko gauza?
Makinabat esames egin ditzazke-gula deritzait, bañan bere baitan ba-koitzak erantzun dezala.

José de Arteche

Imigrazioa Israel'en

Israel'a doazen guziak, harriturik itzultzen dira handik. Ikusi egin behar omen da hura: muño berberean, esate baterako, Jordania aldeko mazela ori eta legor, Israel'goa berde eta ugari. Basamortu zana, baratz bihurtu da hogeit urtetan. Kamioño zabal berriak, hiri ederrak; eta, danaz gain, judutar sendimendu bizia nagusi, azkenean «beren» lurra lortzeko eman dien abertzaletasun gartsua nabarmen, berriz ere bestean mendepean bizitzeari uko osoa; eta, hitz batez, zer gerta ere askatasuna atxikitzeko delibero imoa denengan.

Herria aurreratuta eta industria emendatuta ala, jendea behar du Israel'ek. Juduak, gogoratuak deiturik, mundu guzitik ari dira haruntz: danak kultura desberdinetan hazirik, danak Israel'ekiko arrotz bezaz. Israel'go erresumak hau ba daki; eta betiereko bere politika segituz, imigrazio hori «judutartu» egiten du sistemaz: etorle guzi-guziak, Israel'go eginkizunetan hasi aurretik, lau hillabetez eskolatzen ditu ikastetxe berezitan. Ikastaro hau egin gabe, etorlea ezin ditek Israel'en finka.

Zertan eskolatzen lau hillabete horietan?
Imigranteek, etorleek —gure literaturan maiz esan dugu «joara» emigratioa adierazteko— etorleek, diot, lehen lehenik, irakaskintzako bide-rik modernoen eta egikorrentatik,

judueraz, hebreueraz, hitz egiten eta irakurtzen ikasten dute. Ez arinki, edo Itxura egiteagatik. Ez. Israel'en judueraz egiten da dana; eta etorleak gero, konturatu gabe askotan, sasi-problema asma ez ditzan, oso gogorki laneraginda lau hillabetez hebreueraz mintzatzen eta irakurtzen jartzen da.

Bigarrenik, etorleak Israel'go geografía eta kondaira ikasten ditu; eta Tel Aviv'en edo nun-nahi bizitzen hasten danerako, bere herriko seme da, aberriko gunaz sustraitua eta hezia; eta ez arrotz bat.

Sarrerako ikastaldi hori pasata, Israel'go erresumak etxe bat eman dute; eta «eman» hitza jatorrizko sentiduan hartu behar da, beretzako baita. Israel'darrak, bizitzaren eta nekazaritzaren antolabideari dago-kionez batez ere, sozialistak dira.

Juduak, noski, beste bertute as-koren gehigarri, «chavunismo»aren seta edo izurritearen arrastorik ez dute. Zanpaturik egon dira mende-etan zehar, eta gehienik hitz atse-gin batzuk entzun dituzte. Bost mil-iloit et'erdí gazeko ganberetan hil ondoren, hilketa izugarri hori gezu-rra eta Alemanía'ren etsaiek asma-tutako ipuinia dala zabalteza da zen-bait tokitan... Arabitarren kontrako bere jokabidez iritziarik eman gabe utzirik ere, gauza ezaguna da arabi-tarik guziek Israel' desegituko asmo zindoa dutela; eta juduek ba daki-

te (Txekoslovakia'ko trajeriak zer erakutsi digu ba?) berek konpondu behar dituztela beren problema, «kanpotik» ez baitzaizkie etorriko onenean hitz atsegiñak baizik...

Hori hala izanik, atsoen esanei jaramonik ez, eta juduek bihotzak eta adimenduak idarokitzen dien gisara antolatzen dute beren erresu-ma gaztea.

Frutu guziak ez dira, zernahi esanagatik ere, batzuk nahi bezin us-telak!

LARRESORO

Zeruko Argia

Zuzendaria:
**ANTONIO ITURRIA
ASTIAZARAN**

Naparroko-Kantauriko ta Ara-goko Kaputxinoak argitaratua
(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'n:
Oquendo, 22. Telf. 26666

ARPIDE-SARIA:

Urtekoa 190 Pta.
Atzerrian 265 "

Aldez artu nai bada, gaidetu.

Bizi bai; Bañan nola?

Ramón ZAPIRAIN

Oroipen bat dabil gaur, nere buruan; gau illun onetan, nere barrua, aspertua bezela arkitzen da.

Oroipen mikatza nitzaz jabetu ondoren, nere jokaera balantzaka dabil, batera eta bestera.

Ez dakit nora joan eta nora etorri; eta ala ere bizi naiz. Bizi, arnasa daukatelako, bañan au biziera latza, aspergarria, argirik gabeko bidea bezelaxe. Nere erritik urrutu, gure oitira, izkuntzatik aparte, oñarririk gabe, eta ala ere bizi naiz. Biotzaren taupadak sumatzen ditut, nere begiak ikusten dute, belarriak aditzen dute, nere oiñari eskerrak, ibiltzen naiz... bañan nere egintzak ez dira zuzenak. Oraindik okerrago, modo onetan, ezin dira beñere onak izan, ez naiz nere gizatasunaren jabe, zineak, futbolak, kineleak, anunzioak, diruak emandako indarrak, nere barrena otza, goibel utzi du.

Eta ni oien aurrean, bakarrik, kemenik gabe, indar paltean, nere biotzkadak zauriturik. Mundu gaitztoa!

Nere etxera, lan-tokira, lagunetara joatean, ez diotet galdetuko, nola bizi diran, ez bainitzake ausartuko, alkar-izketa zuzen bat eramaten, eta beragaitik ez nintzake lasai geldituko.

Orregaitik, telebistaren prográma, kirolariaren abizenak, kineletoako apostuak, eta diruaren kontuak erabilirik, nere senide, lagun eta gañuntzoko gizonekin, gal oiek erabiliduz, lasai itz egingo genduke, burrukarik ez litzake izango, dana paketsu irau eta Jarraituko da. Albistariak, izparrin-giak, irratia eta telebistak, gure pentsaera oiek goratuko ditu, beti orrela jarraitzeko bidea zabalda eskeñiaz.

Bitartean, danak pakean biziko gera, naiz barrena ustelduta eduki, bañan orrek ez dauka ajollik; ez gera konturatzen zer egiten degun, ez degu errurik. Mariposaren antzera gabiltz, batean onera, bestean urrentzuago; aidean, eguak zabalduzik, bañan bide jatorrik gabe.

Gizona, exkasa da, beldurrez betetako izaki bat. Beldurra bata-bes-teari, beldurra espexeari, beldurra, gizon.berria izateko. Eta orrela, bene-tako gizatasunik gabe, ez naiz libre arkitzen, mundu au manejatzen duten bost gizoneri, lotuta arkitzen naiz.

Zer egin?, ez dakit, gauz aul bat bezelaxe arkitzen naiz, lana egiteko gogorik gabe... bañan esperantza badauk, bear bezela bizitzeko espe-rantza.

Ori oraindik ez det galdu, beraz oraindik argi pitin bat ikusten det, eta argi orren bitartez, burruka egin nai nuke. Burruka, zuzen eta sakon bat. Orren atzetik nabíl aspaldian. Eta nere jokaera, nere gizatasunik dato-rren abotsa izan nai nuke.

CAJA LABORAL POPULAR

(LAN KUTXA ERRIKIOIA)

— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

Aurrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean
— diruketa-saillean
— lantegi-zuzendari-tza saillean

ZUK AUERRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI
PREMITIK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU.

Laguntza ezin obeak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak
eskeintzen ditugu.

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

Mondragoi	Beasain	Pasai San Pedro	Ernani
Aretxabaleta	Gernika	Erreñderi	Zarautz
Elorrio	Zumarraga	Gazteiz	Sestao
Barakaldo	Elgoibar	Bilbo	Azkofia
Ondarroa	Markina	Legazpia	Mungia
Andoain	Bergara	Irun	Yurre
Plazentzi-Soraluze	Altsasua	Durango	Bermeo
Oñati	Eibar	Amorebieta	Lasarte
Ormaiztegi	Tolosa	Azpeitia	Santurce
			Zumaya

Zeruko Argia arpideak ugaltzeko

*Beste lagun batzuek arpidezko gogoa sartuiezu.
*Lagunen bati, sendieren bati, erregalatu egizu arpide bat urterako.

ARPIDE - TXARTELA

(Izen-abizenak)

(Zuzenbidea)

(Erria)

(Izenpetu)